

ARIKETAK

- 1 Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena edo egokiena:
- a) Europako sakelako **fabrikante** nagusiak ados jarri dira datuak igortzen dituzten sakelakoentzat kargagailu bakarra sortzeko.
b) Europako sakelako **fabrikatzaile** nagusiak ados jarri dira datuak igortzen dituzten sakelakoentzat kargagailu bakarra sortzeko.
 - a) Odoluzkiak izateko arriskua murrizteko garrantzitsua da **zuntza** hartzea, ur asko edatea eta kirola egitea.
b) Odoluzkiak izateko arriskua murrizteko garrantzitsua da **fibra** hartzea, ur asko edatea eta kirola egitea.
 - a) Arrakasta polita ukan du lehen **festibal** honek.
b) Arrakasta polita ukan du lehen **jaialdi** honek.
 - a) Etxerako autobusa hartzean, **faszista** taldea zain zuten.
b) Etxerako autobusa hartzean, **faxista** taldea zain zuten.
 - a) Behin moldatuta, sarraillak berriz ixten dira, eta trenea prest dago **ferrokarril** berrirako.
b) Behin moldatuta, sarraillak berriz ixten dira, eta trenea prest dago **burdinbide** berrirako.
 - a) Hitzaren **fereka** sentitzean, artisten senak biziraunen du.
b) Hitzaren **fereku**a sentitzean, artisten senak biziraunen du.
 - a) Arkeologoek VIII. mende inguruan **fetxatu** zituzten hilobiak.
b) Arkeologoek VIII. mende inguruan **datatu** zituzten hilobiak.
 - a) Boterearen mundua urruna egin zaigu guri, gutako askori, **fidagaitza** iruditu izan zaigu.
b) Boterearen mundua urruna egin zaigu guri, gutako askori, **fidakaitza** iruditu izan zaigu.
 - a) Espaloi-ertzean eserita, mutil gazte bat uzkurtuta zegoen **farol** baten ondoan.
b) Espaloi-ertzean eserita, mutil gazte bat uzkurtuta zegoen **farola** baten ondoan.
 - a) Aurkariak sistema errepublikar bateko kide ez eta sistema **feodal** bateko kideak direla adierazi zuen.
b) Aurkariak sistema errepublikar bateko kide ez eta sistema **feudal** bateko kideak direla adierazi zuen.
 - a) Haietako baten aitak -gupida handiz- **fariseu** deitu dizue.
b) Haietako baten aitak -gupida handiz- **farisau** deitu dizue.
 - a) Tutankamon **faraoi-haurraren** hilobia aurkitu zutenetik, 1922. urtetik, arkeologoek ez dute berriro lortu hilobi ukigabe bat topatzea.
b) Tutankamon **faraon-haurraren** hilobia aurkitu zutenetik, 1922. urtetik, arkeologoek ez dute berriro lortu hilobi ukigabe bat topatzea.

A R I K E T A K

2 “Gramatika” ataleko artikuluko egileak planteatzen duenez, izen-ardatzaren ondoko erlatiboen bidea aukera ona da esaldiak ulergarriago egiteko, esaldietako informazio garrantzitsuena aurreratzeko aukera ematen baitute. Saia zaituz honako esaldiak berridazten, proposatutako egiturak erabiliz:

1. Gaztela eta Leongo pertsona gorren erakundearen federazioak (FAPSCL) teknologia berri eta bideo-konferentzia sistemen azkeneko belaunaldia erabiliz komunikazio natural eta oso bat sustatzea bilatzen duen Videoelbarco proiektua aurkeztu du.

Gaztela eta Leongo pertsona gorren erakundearen federazioak (FAPSCL) Videoelbarco proiektua aurkeztu du _____

2. Zerbitzu honek emandako isun agiriak Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial biak erabiltzen ez zirelako ez zuela Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legearen 8.2. artikuluan ezarritakoa betetzen azaltzen diguzun zure idatzia jaso ondoren, jakinarazten dizugu agiriak izapideketa-akatsa duela.

Zure idatzia jaso ondoren _____

3. Jurisprudentziak kaltea eragiten duena erantzule ez den, beste norbait baizik, zenbait suposamendu onartzen ditu (analogia erabiliz).

Jurisprudentziak zenbait suposamendu onartzen ditu (analogia erabiliz), _____

4. Eskaera egiteko, D.1 eredia aurkeztu beharko da, eta horrekin batera interesduna matrikulatuta dagoela eta ikastaroaren edukiak lanpostuarekin daukan lotura argi eta garbi adieraziko duen heziketa zentroaren idatzia.

Eskaera egiteko, D.1 eredia aurkeztu beharko da, eta horrekin batera heziketa zentroaren idatzia, _____

5. Abantaila handiak eskaintzen dituzten baldintza ekonomikoetan enpresa berrien kokapena laguntzen duen Elkartuz SAren jarduteko eskemari esker elkartegiko sarearen okupazioa %90ekoa da gaur egun.

Elkartuz SAren jarduteko eskemak, _____

6. Eskabideari erantsi behar diozu eskabidea egin duen erakundeak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak beteta dituela egiaztatzen duen Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren Probitzia Zuzendaritzaren egiaztagiria eguneratua.

Eskabideari erantsi behar diozu Gizarte Segurantzaren _____

7. Era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38.4 artikuluan auzi bera aipatzen du.

Era berean, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, _____

8. Foroaren emaitzak ezagutzera emateko, herrian doan banatuko den argitalpen bat, eta tokiko telebistan emango duten ikus-entzunezko bat, non ekarpen guztiak jasoko diren produktu multimedia baten bidez, egingo ditu Udalak.

Foroaren emaitzak ezagutzera emateko, Udalak _____

3 Sinonimoak

1. Gaur hasten dugun ikastaro honetan, kulturaren transmisioa izango dugu **solasgai** eta hainbat aditu izango ditugu gure artean.
2. Urdaibai **gailendu** da, faboritoen aurretik, aurtengo Kontxako estropadetan.
3. Gipuzkoako hondakinen **kudeaketa** eztabaidagai da azkenaldi honetan.
4. Basogintza intentsiboak gure basoaren **suntsipena** eragiten du hazkunde azkarreko espezieen mesedetan (pinuak, eukaliptoak...).
5. Urdaibaiko Guggenheim Sukarrietan egitea **eragotzi** dio Jaurlearitzak Aldundiari. Elementu arkitektonikoen kontserbazioa bermatu eta inguru horretako ingurumen balioak zaindu nahi ditu neurri horrekin.
6. Biltzarrak egin duen balorazio horretan **irizkide** gara zalantzarik gabe, eta beste puntu askotan ere, hitz eginez gero, bat etorriko ginateke luzaro gabe.
7. Manifestazioan auziperatuekin batera, eragile sindikal, sozial eta politikoetako ordezkari ugari, zein udal **hautetsi** eta hautetsi ohi asko egongo dira.
8. Zenbat buru, hainbat **aburu**: ez da erraza akordio batera heltzea.
9. Gaur egun, sare sozialen bidez gure bizitzako kontuak **haizatze**ko joera daukate hainbatek.
10. Gertuko eta emankor berba egin zigun zuzendariak, eta **zinez** eskertzen diogu hala egin izana.
11. Talde horren proposamena **amarru** bat da: gu engainatu eta tranpan erortzea nahi dute.
12. Zirkulazio-konexio berria egin da auzoan, **zedarri** garrantzitsua kale gutxi dituen auzo horretan.
13. Lapurrak ez zuen **aztarrenik** utzi eta zaila izango da hura topatzea.

SOLUZIOAK

1 Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena edo egokiena:

- | | |
|---------|-------|
| 1. b | 7. b |
| 2. a | 8. a |
| 3. a, b | 9. a |
| 4. b | 10. b |
| 5. b | 11. a |
| 6. a | 12. a |

2 Gramatika:

Honakoak proposamenak baino ez dira, beste hainbat modutara idatz ditzakezu.

1. Gaztela eta Leongo pertsona gorren erakundeen federazioak (FAPSCL) Videoelbarco proiektua aurkeztu du, zeinak komunikazio natural eta oso bat sustatzea bilatzen duen, teknologia berri eta bideo-konferentzia sistemen azkeneko belaunaldia erabiliz.
2. Zure idatzia jaso ondoren, non azaltzen diguzu zerbitzu honek emandako isun agiriak ez zuela Euskal Autonomiararen Erabilpena Arauzotzeko Oinarrizko Legearen 8.2. artikuluan ezarritakoa betetzen, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial biak erabiltzen ez zirelako, jakinarazten dizugu agiriak izapideketa-akatsa duela.
3. Jurisprudentziak zenbait suposamendu onartzen ditu (analogia erabiliz), non kaltea eragiten duena ez den erantzule, beste norbait baizik.
4. Eskaera egiteko, D.1 eredua aurkeztu beharko da, eta horrekin batera heziketa zentroaren idatzia, interesduna matrikulatuta dagoela eta ikastaroaren edukia lanpostuarekin daukan lotura argi eta garbi adieraziko duena.
5. Elkartzuz SAREN jarduteko eskemari esker, abantaila handiak eskaintzen dituzten baldintza ekonomiko-etan enpresa berrien kokapena laguntzen duena(k), elkartegiko sarearen okupazioa %90ekoa da gaur egun.
6. Eskabideari erantsi behar diozu Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Probintzia Zuzendaritzaren egiaztagirri eguneratua zeinak eskabidea egin duen erakundeak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak beteta dituela egiaztatzen duen.
7. Era berean, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duenak, 38.4 artikuluan auzi bera aipatzen du.
8. Foroaren emaitzak ezagutzera emateko, Udalak argitalpen bat aterako du, herrian doan banatuko dena, eta ikus-entzunezko bat egingo du, tokiko telebistan emango dutena, non ekarpen guztiak jasoko diren produktu multimedia baten bidez.

3 Sinonimoak:

- | | |
|-------------------------------|-------------------------------|
| 1. hizketa gai, hizpide | 8. ikuspegi, iritzi, uste |
| 2. nagusitu, garaitu | 9. haizeratzeko, barreiatzeko |
| 3. gestioa, tramitea | 10. egiatan, benetan |
| 4. hondamena, friskantza | 11. maltzurkeria, iruzur |
| 5. debekatu, galarazi | 12. mugarri, zutarri |
| 6. iritzi bereko, uste bereko | 13. aztarnarik, arrastorik |
| 7. aukeratu, hautatu | |